

Otsailak 22: Emakume eta gizonen soldata-berdintasunaren aldeko eguna

Lanaldi osoan lan egiten duten gizon eta emakume gazteen soldaten arteko aldea 100 eurokoa baino handiagoa da

[Gazteen Euskal Behatokia](#)k Euskadiko gizon eta emakume gazteen soldaten arteko aldeak daudela adierazi nahi du. Aurkezten dituen datuak "[Gazteak eta enplegua Euskadin 2015](#)" ikerketan kaleratu ditu. Ikerketa hori behatokiak berak egin du 30 urtetik beherako ia 1400 gaztek erantzun duten inkesta bat oinarri hartuta.

Euskal Autonomia Erkidegoan 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak 1000 euro inguru irabazten dituzte, batez beste, hilean (zehazki, 996 euro), gazteek beraiek emandako erantzunen arabera.

Gizon gazteek emakume gazteek baino gehiago irabazten dute: batez beste 1125 euro irabazten dituzte gizonak, eta 867 euro emakumeak. Kontuan izan behar da lanaldi partzialean lan egiten dutela gaur egun emakume gazteen ia erdiek (emakume gazte okupatuak % 48,9k; gizonen kasuan, aldiz, % 22,1ek), eta lanaldi osoan lan egiten dutenen erdia irabazten dutela, batez beste, lanaldi partzialean lan egiten dutenek. Baina, hori al da emakumeak gizonak baino soldata apalagoak izatearen arrazoi bakarra? Galdera horri erantzuteko, lanaldi osoan lan egiten duten gizonen eta emakumeen soldata konparatu ditugu, eta, egoera horretan ere, emakumeak baino gehiago irabazten dute gizonak: 1242 euro irabazten dituzte gizon gazteak eta 1119 euro emakume gazteak.

16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak batez besteko soldata, sexuaren eta lanaldi motaren arabera			
(€)	GUZTIRA	Sexua	
		Gizonak	Emakumeak
Batez besteko soldata, guztira	996	1125	867
Lanaldi osoan lan egiten dutenen batez besteko soldata	1195	1242	1119
Lanaldi partzialean lan egiten dutenen batez besteko soldata	605	599	607

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak eta enplegua Euskadin 2015")

Ezin da esan, beraz, emakumeen artean lanaldi partzialen ehunekoa handiagoa izatea denik soldata-diferentzia horren arrazoi bakarra.